



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA AURRETIAZKO ONESPENA EMATEA “GUARDIAKO AINTZIRAK (ES2110021)” KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA (KBE) IZENDATZEN DUEN ETA BERE KONTSERBAZIO NEURRIAK ARGITARATZEN DITUEN DEKRETUAREN PROIEKTUARI.

2012ko abenduaren 12ko Aginduen bidez, Natura 2000 Sareko sei Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko, eremu horiei dagozkien kontserbazio neurriak onartzeko eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) bat izendatzeko dekretua onesteko espedienteari hasiera ematea erabaki zen. Eremu horien artean “Guardiako Aintzirak” ES2110021 BGLa zegoen.

Une honetan eremu hori mota biko Naturagune Babestua da: Biotopo Babestua da, 417/1995 Dekretuak, irailaren 19koa, Laguardiako Carralagroño, Carravalseca eta Prao de la Paul aintzirak babestutako biotopo deklaratzeko dena, deklaraturia — geroago, 55/1998 Dekretuak, irailaren 29koa, Carralagroño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak babestutako biotopotzat deklaratzeko zituen dekretua aldatzen duena, Musco izena duen aintzira biotopo horren eremuan sartu ahal izateko dena, aldatu zuena—; eta Natura 2000 Sareko eremua da Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauari jarraituta, alde biogeografiko mediterranearreko erkidegorako leku garrantzitsuen zerrenda ezartzen duen 2006/613/EE Erabakiko zerrendan dagoena. Halaber, nazioarteko garrantzidun hezegune Ramsar da eta EAEko Geologia Interesdun Lekua ere bai. Beste aldetik, 34/2015 Dekretuak, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak, ezartzen duenari jarraituta “Guardiako Aintzirak” KBEan aplikatu beharko da. Beraz, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia (NKLTB) onartzen duenaren, 18. artikulua ezartzen duenari jarraituz, eremu honetako plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planeari, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin. “Guardiako Aintziren” kasuistika horrek barnealdeko aintzira-komplexu horrentzako berriazko Dekretu proiektuari ekitea gomendatzen du.



Lege horrek aurreikusitako dokumentu bakarra tipologia bientzat, “Gaurdiako Aintziren” kasuan, honako hiru Dekretuak integratuta lortzen da: 417/1995 Dekretua, irailaren 19koa, Laguardiako Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul aintzirak babestutako biotopo deklaratzeko dena; 55/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak babestutako biotopotzat deklaratzeko zituen dekretua aldatzen duena, Musco izena duen aintzira biotopo horren eremuan sartu ahal izateko dena; eta 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak.

Horretaz gain, oso kontuan hartzen da Eusko Jaurlaritzak eta Foru Organoek dituzten baterako eskumenek koordinazio ahalegin berezia eskatzen dutela: Naturagune Babestuen mota biak deklaratzeko Eusko Jaurlaritzari dagokio, betiere, (NKLTBaren 19.1 artikulua). Aldi berean, KBEetan kontserbazio helburuak eta arauak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 22.5 artikularen lehenengo atala) eta neurriak onartzea Foru Organoei dagokie (NKLTBaren 22.5 artikularen bigarren atala). Tresna horiek guztiak EHAAr argitaratu behar dira, edonola ere.

Prozedura horren bidez Natura 2000 Sareko eremu hau ahalik eta lasterren deklaratu nahi da eta, hartara, atzerapenaz bada ere, Europako erakundeen aurrean gure egitekoak bete. Helburua bikoitza da: lehenengo eta behin, eremua KBE izendatzea; eta, bigarrenaz, Habitaten Zuzentarauaren 6. artikulua KBEetarako eskatzen dituen kontserbazio neurriak onartzea eta argitaratzea eta, hala, Europaren aurrean dagozkigun eginkizunak betetzea.

Horretarako, hasierako onespina duen Dekretu honek artikuludun parte laburra du eta bi Eranskin. Lehenengoak KBEaren, Biotopo Babestuaren eta Babespeko Eremu Periferikoaren kartografia jasotzen du; bigarrenak NKLTBaren 22. artikulua Eusko Jaurlaritzarentzat ezartzen dituen beharrak, Naturagune Babestuen mota biei dagozkienak, betetzen ditu.

Proiektu honen helburua “Guardiako Aintzirak” KBEa izendatzeko aurretiazko onespina gehi neurri egokiak onartzea izanik, aipatzekoa da prozedura abian jarrita eta behar ziren azterketak egin eta gero, zenbait aldaketa gertatu direla Euskal Herriko Natura Babesteari buruzko 16/1994 Legean Natura 2000 Sareari dagokionez: martxoaren 11ko 1/2010 Legea eta urriaren 10eko 2/2013 Legea. Ondorioz, aipaturiko testuategia sortu zen, non behar bezala hartu ziren kontuan. Halaber, ikuspegi

teknikoaren aldetik, Batasunaren intereseko bost habitat daudela egiaztatu da, horietatik bi lehentasundunak, eta aipagarriak dira landaredi halofiloarekin erlazonaturikoak, ur gezarekin loturikoak eta larre xerofiloak. Lekuan, Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoko *arriskuan* edo *kaltebera* kategoriako bost flora espezie agertzen dira, gutxienez. Aipatzeko da 2009/147/EE Zuzentarauren I. Eranskineko 13 hegazti espezie agertzen direla, gutxienez, eta anfibio espezie batzuen, bisoi europarraren eta igarabaren presentzia nabarmentzeko da ere bai. Inguruaren azterketa zehatz horrek KBEaren, Biotopoaren eta Naturagune Babestu figura horien bien Babespeko Eremu Periferikoaren mugapena zabaltzea gomendatzen du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetzeko asmoz, dagoeneko dekretu-proiektu egituratua egin denez, eta hori bat datorrenez 2012ko abenduaren 12ko Aginduaren planteamenduekin, bidezkoa da dekretu hori onartzeko beharrezko izapideekin aurrera egitea.

Horregatik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- “Guardiako Aintzirak” (ES2110021) Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Dekretu proiektuari eta berari dagozkion kontserbazio neurriei aurretiazko onespena ematea.

Bigarrena.- Onespen prozedurarekin segitzea, 2012ko abenduaren 12ko Aginduan, Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko dekretua onespen espedienteari hasiera emateko dena, aurreikusitako izapideei jarraituta, NKLTBan jasotako arau aldatuetara egokituta, betiere.

Horretaz gain, nabarmendu behar da aipaturiko hasierako Aginduak dekretu-proiektuei loturiko genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egitea aurreikusten bazuen ere, aurreko legealdian izapidetutako eta onartutako dekretuei zegokien Emakunderen

txostenak iritzi zien ez zutela behar genero eraginaren ebaluazioa, hortaz, ez da egin behar aipaturiko izapidea.

Hirugarrena.- Agindu hau eta espediente osoaren kopia bat Arabako Foru Aldundiari igortzea, hartara, proiektu honetan ezarritako kontserbazio helburuetan oinarrituta, kudeaketa jarraibideak presta ditzan, NKLTBaren 22.5 artikuluaaren bigarren atalean jasotzen denari jarraituta.

Laugarrena.- Bi administrazioen arteko lankidetza sustatzen jarraitu beharko da, eta ahal bada, dokumentu osoaren baterako informazio publikoko izapidea egingo da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren zatia eta Arabako Foru Aldundiaren zatia batera.

Vitoria-Gasteizen,

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua

Izpta.: ANA OREGI BASTARRIKA